



JIMÉNEZ RIESCO, M^a Ángeles
La construcción de una ciudad: Ensanches y
política municipal de vivienda
(Pamplona 1885-1936)

Pamplona: Gobierno de Navarra, Departamento de Presidencia, Justicia e Interior, Instituto Navarro de Administración Pública, 2011
 532 p. : il. ; 24 cm.
 ISBN: 978-84-235-3262-9

Erreseinatutako liburua, XIX. mende bukaera eta Espainiar Gerrate Zibilaren bitartean dagoen tarte horretan Iruñan gertatzen diren aldaketei buruzko azterketa itzela da. Bere momentuan, M^a Ángeles Jiménez Riesco-k Nafarroako Unibertsitatean eginiko tesiaren argitalpen honek “Martin Azpilicueta” sariaren accessit bat jaso zuen 2010-ean.

Ziur asko, eta egileak dioen bezala, ikerketak etxebizitzak, eta berez arkitekturak, hiriarren eraikuntzan duen garrantzia nabarmentzeagatik azpimarragarria da; bistakoa izan arren, gaur egungo hirigintzaren ikerketa mundua ikusita ez da gutxi hori. Zentzu honetan, lan homologoa aipatu beharko genuke, Bilbori buruzko etxebizitzaren garapenari zuzendutakoa eta Asier Santas Torres-ek Egina. Seguruena, bi liburu hauen arteko erlazioa Carlos Sambriicio katedradunaren zuzendaritzak esplikatzeko du, azken honen lana ere berea izan zelako¹.

Hain zuzen ere, etxebizitzaren gako honek garrantzi handia du hiriaren azterketarako giza garapen ardurak duen nabarmentasuna azal azalean agertzen bait duelako espainiar hirien eraikuntzan. Iruñaren kasu berezian, azpimarratzekoa da bere arresien eraizpen beran-korrak izan zuen ondorioak etxe higieniko eta merkearen faltan.

Testuinguru honetan, egileak kronika ugari josten ditu Iruñaren istorio hau azaltzeko: “La esperanza de un ensanche” dioen atal batetatik, etxe merkeen iguruan agertzen diren beste tira biretara eta 30-garren urte zaileen panorama konplexu eta pausatzailea aztertu arte.

Liburuaren estruktura 4 atal nagusietan oinarritzen da. Oizkoa den bezala, atal hauei presentazioa eta konklusioak gehitzen zaizkie. Horrela, lehen bi atalen artea 1900-1915 eko Nafarroaren egoerara zuzendua dago, “Navarra ¿Paraiso rural” eta “Las gestiones del ensanche”, berandugo 1920 eta 1930 hamarkadetako ezaugarriak azaltzeko azkenengo beste bi ataletan, “El ensanche como frustración: los años veinte” eta “Los años treinta: vivienda y paro”.

Lehen bi ataletako gaiak Iruñean dagoen ostatu faltaren arazoa, hiriaren ezaugarri mitarrak, zabaltzearen kontrolaren inguruan dauden tirabirak, eta zabaltze berak sortzen duen itxaropenari buruzko azterketa sakona garatzen du textuak.

Iruñearen inguruan zegoen landatar giroari lotutako mitoa ezeztu ostean –badirudi momentuko informe ofizialen arabera, Nafarroan ez ziren giza arazo nabarmenik jasotzen, beste hiri ugarietan gertatzen ziren bezala–, Jiménez Riesco etxebizitzaren beharra ziurtatzen du langilearentzat. Zentzu honetan, Leon XIII ren *Rerum Novarum* enziklikak duen eragina azpimarratzekoa omen da, egilearen hitzetan. Honen arabera, langileari zuzendutako ekin-tzen eta laguntzen artean, bizimodu duin bat ziurtzeko etxebizitza eta hiriaren kalidadea ezin-bestekoa zen, langilea eta bere familia ondo babesten bait zuelako. Helburu nagusia gar-bitasunari zuzendua zegoen bere faltak gizartean zuten eragina arazo ugari ekartzen bait zituen. Horrela, eta egileak zehazten duen bezala, ordungo ikerketek eta informe batek klase dirudun eta boteretsuei eskakizun hau egintzen zien: “(...) que ejerciesen una protección sobre

1. SANTAS TORRES, Asier. *Urbanismo y Vivienda en Bilbao, 20 años de posguerra*, Colegio Oficial de Arquitectos Vasco Navarro, Delegación de Vizcaya, 2007.

ellos como si de hermanos pequeños o desafortunados se tratase puesto que los pobres demuestran que sobrellevan con resignación cristiana las muchas penalidades y carencias que les impone la ley santa e ineludible del trabajo”.

Bigarren atalean, zabaltzearen lehenengo kudeaketari zuzendua dago. Iruñeako konfigurazio partikularrek ez zuten operazio honi alternatiba gehiegi emanten. Horrela, hiri istorikoaren dentsitatea gorantz hari zen XIX mende bukaeratik aurrera. Ángel Goicoechea eta Manuel Martínez Ubago arkitektoen 1901ko lanen arabera, hiriak arresitiki kanpo hazi behar zuten. Bere proiektuaren memoriak dioten bezala “La aglomeración de viviendas dentro del recinto murado que aprisiona la Ciudad, construido para una masa de población notablemente inferior a la actual, es tan considerable a causa de la gran densidad de la misma que evidentemente siéntese por todos necesidad de nuevos terrenos para construir en más aceptables condiciones (...) En el actual estado de la Ciudad, los terrenos dentro de ella adquieren gran valor, e imposibilitan dar al proletario viviendas medianamente higiénicas y en relación con los escasos recursos pecuniarios con que pueden contar”.

Madril (1859), Bartzelona (1860) edo Donostiako (1864) zabaltze goizen heredua- ren kontra, Iruñean 1920an hasiko ziren ofizialki honen lanak 1917an baieztutako Serapio Esparzaren proiektuaren arabera. Jimenez Riescok ondo zehazten ditu XIX. mende bukaeratik datozten prozesu guzti hoi en zailtasunak eta kudeaketa luzea, neurri handian, Iruñearen ezaugarri defentsibo eta militarri lotutako arazoak.

Hirugarren atalean azaltzen den azterketa proiektatu eta eraikitako etxebizitza ezberdinen kasuetan oinarritzen da. Ezaugarri nagusia, atalaren izenburuak ondoren irudikatzen duen bezala –“El ensanche como frustración: los años veinte”– porrot eginiko kasu ugaria da.

Laburtzeko, adibidez datu hau idatzi daiteke: 1920ko hamarkadan etxadi bakar bat eraiki zen, 106 etxebizitzekin.

Gainera hiriko ostatu egoera larritu egin zen. Lanen hasierakin, nekazal toki guztietako jendea Iruñeara hurbiltzen joan zen, aukera hoberen itxaropenarekin. Etxebizitzaren ezak eta lanen atzerapenek egoera okertu egin zuten. Guzti honi 1923ko eraikuntzaren krisia gehitu zitzaion. Hiria industria gutxi bait zuenez, langile gehienek eraikuntzan edo eraikuntzari lotutako lanetakoak ziren. Beraz, eta egileak behin eta berriro azpimarratzen duen bezala, momentua drama handikoa bihurtu zen.

Testuinguru honetan, ez ziren izan gutxi agertutako proiektu eta ekintzak. Egileak ugari azaltzen ditu: “Comisión de estudio de las Casas Baratas”, 1922 eta 1923ko konkurtsoak, Victor Eusa, Erro zeta San Martín, Serapio Esparza edo Yáñez Larrosan proiektuak, etabar. Guztiak garrantzi handikoak nafarroako panorama arkitektoniko aberatsa egiaztatzen.

Laugarren eta azken atalak “Los años treinta: vivienda y paro” beste proiektuen ikerketarekin segitzen du. Esberdintasun nabarmen bezala etxebizitza berrien eraikuntza azpimarratu daiteke: 20. hamarkadan 106 etxebizitza besterik ez baziren eraiki, 30. Hamarkadan haunditu egin zen, bereziki etxebizitza ekonomikoarena.

Gerra Zibilaren aurreko urte hauetan, ekimenak asko izan ziren Jiménez Riescon hitzen arabera: “Casa del Pueblo”, Ezequiel Lorca Aquerretaren proposamena, Colonia Argaray-aren kasu paradigmakoa, Brun eta Zalba elkarteak edo Santiago Llorens-en etxebizitzak.

Espaniar II Errepublikaren agerpenak guztiz nabarmentzen ditu urte hauek. Largo Caballeroen Lan Ministeritzatik, langilearen aldeko mekanismoak indartu ziren. Adibidez, badirudi, “Casa del Pueblo”ren proiektuaren atzetik, Viena *höfe* bat sortzeko asmoa egon zen. Tamalez, eta II Errepublikan maiz gertatu zen bezala, proiektua ez zen burutu. Halaber, Erregimen berriak ez zuen atetik zetorren langabezia konpontzeko aukerarik izan eta arazoa areagotu egin zen.

Atalarekin bukatzeko, egileak Argaray Koloniaren kasua azaltzen du. Adibidea, seguraski, mugimendu modernoaren eredu ezin hobea da, kalidade handikoa eta estatu mailan garrantzitsuenetakoa. Rufino Martinicorenak bultzatua eta Juan Madariaga eta Joaquín Zarranzek proiektatua, Koloniak mota ezberdinetako etxebizitza kolektiboak proposatzen ditu. Azpimarratzeko da Madariaga eta Zarranzek lotura espainiar mugimendu modernoaren abangoardiarekin, Euskal GATEPAC eko kideak bait ziren. Logikoa denez, proposamenak Europa mailan etxebizitza kolektiboaren inguruan agertutako ezaugarri asko jasotzen ditu.

Amaitzeko, Jiménez Riesco-n lana, *coda* moduan konklusio argi batzuk garatzen ditu non “el fracaso del ensanche” edo “anomalías observadas y su solución” deritzaten puntuetan sakontzen du.

Konklusio batzuk

Konklusio hauetatik batzuk bereiztu daitezke. Alde batetik, egileak zehazten duen “la desaparición de la Arcadia feliz” dioenean nekazaritza munduari zuzentzen denean. Puntu honek giza errealidade konplexu eta urbanoa egjztatzen du XIX mendeko Iruñaren bukaeran. Dokumentu ugariak Koronari eginiko eskakizun orokorra agerian uzten dute: hau da, Iruñako biztanlegoak arresien eraizpena eskatzen bait zuen indarrez 1854-tik.

Era berean, hiri zabaltzearen proiektuetan etxebizitzaren baldintzak izan zuen garrantziak azpimarratu beharko genuke. Horrela, eta egilearen hitzetan “pronto se perfiló una realidad: la ciudad existente, así como sus zonas naturales de crecimiento (terrazza del Arga) eran terreno reservado para albergar la vivienda del sector social acomodado, mientras que las mas alejadas y los terrenos de peor calidad, (Rochapea, Magdalena, Estación del Norte) se reservaban para la vivienda obrera”. Halaber, azterketak esaten duen bezala, gaizki deituritako lehen zabaltzea, edo barne zabaltzea, ez zela etxebizitzari zuzendutako lana izan, orain arte pentsatu izan den moduan, baizik eta maila aberatsetako gizartearen expresio izan zela defendatzen da. Hau da, negozio bezala diseinatutako eragiketa izan zen, lurraren balo-arearen areagotze bait zuen helburu.

Bukatzeko, zabaltzeak izan zuen atzerapenaren ondorioak aztertzen dira, 1915-garren urtean proiektua onartu arren ez bait zen 1920 arte eraikitzen hasi. Egileak, hiriaren zabaltzea ordungo giza eta ekonomikoaren porrotaren irudi ere dela adierazten du, lege ezberdinen desfaseen arteko ezarpenengatik.

Zabaltzearen porrotak giza aldea ere izan zuen logikoki. Konkretuki, eta egileak dioten bezala, zabaltzearen trama ez zelako kapaz izan etxebizitza merke eta higienikoa sortzeko.

Beste konklusioetako bat zabaltzearen ezaugarriekin dute serikusia. Jiménez Riesco dioten bezala, Proiektuak Idelfonso Cerdak Bartzelonarako egin zuen influentzi nabarmena du. Teodoro Anasagastik esan bezala, zabaltzea monotonoa zen eta barneko patioak behin baino gehiagotan arazo higienikoak eman zituzten. Hala ere, ereduak balio ugariak ere bazituen, kalidadezko espazio urbanoa sortzeko aukera ematen bait zuen.

Bukatzeko, egileak gai batzuk azpimarratu nahi ditu datozen kasu berrietan gerta ez daitezkeen. Bere esanetan, espekulazioak, planifikazio ezak, etxebizitza politika eta eztabaida ezak, konstanteak izan dira ez bakarrik Iruñean baizik eta Espainiako beste hiri ugarietan. Horregaitik, ikerketa hauen balioa aldarrikatzen du, ondorengo esperientziak hobetzeko asmoarekin.

Liburuaren ezaugarriak

Liburua oinarritzen duten iturriak ugariak dira eta ikerketaren kalitatearen fede ematen dute. Baina hortaz gain, egileak etxebizitza merke hauen eraikuntzat inspiratu zituzten erreferentzi internazional asko ere aipatzen ditu eta hau guztiz azpimarragarria da espainiako arkitektura eta urbanismoaren istorioan duen esanahaiagatik.

Erabilitako prosaren tonua bizia eta zehatza da, testuaren irakurketa asko lagunduz. Halaber, jasotako irudiak asko laguntzen dute testuingurua egokitzen. Dena den, ilustrazio gehiago faltan botatzen ditugu.

Azken batez, ezinbestekoa den liburu batetaz hitzegiten dugu hiriaren erainkuntzari buruz jakin nahi badugu eta dudarik gabe, ikerketak urbanismo espainiaren panorama guztiz aberasten du.

José Ángel Medina Murua